

PRENTSA OHARRA: 2021.11.16

Flandria eta Euskadiko eragileak elkartu dira bi herrialdeen arteko kultur harremanetan sakontzeko

- **Elkar ezagutzea areagotzeko, kultur trukaketak sustatzeko eta kultur erakusleihoak eratzeko helburuarekin antolatu ditu topaketa hauek Etxepare Euskal Institutuak**
- **Arte eszenikoen, zinema eta ikus-entzunezkoen, literaturaren, musikaren, artearen eta hizkuntzaren alorreko hamabost flandriar eragile bilduko dira Gasteiz, Donostia eta Bilbon antolaturiko jardueretan**

Euskadiren eta Flandriaren arteko kultur trukaketa martxan da. Lehen urratsa, eragileen arteko topaketa profesionala izango da, azaroren 15etik 17ra egiten ari direna, hau da, astelehenetik asteazkenera. Bilbon, Donostian eta Gasteizen izango dira, eta lan bilerak egiteaz gain, hainbat jarduera kulturaletan ere parte hartuko dute.

Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarekin elkartu ostean, Iñigo Urkullu Lehendakariak harrera egin zien astelehenean Lehendakaritzan. Hizkuntza, kultura eta sormen industrien alorreko 15 erakundetako ordezkariak Gasteiz, Donostia eta Bilbon egingo diren kultur topaketa profesionaletan hartuko dute parte, 30 euskal eragile ingururekin batera. Flandria eta Euskadiren arteko kultur harremanak estutzea du helburu, euskal kulturari leihoa irekitzeko xedez.

Eragileokin batera bertaratu da Euskal Herrira Jan Jambon Flandriako ministro-presidentea. Izan ere, elkar ulertzeko memorandum berria sinatu zuten (MoU) Urkulluk eta biek astelehenean, 2015ean sinatu zuten lankidetzak-akordioa indartzeko.

Euskadik eta Flandriak orain arte izan dituzten lankidetzaz-esparruak erreparasatu zituzten, eta bi lurraldeek dagoeneko lankidetzan ari diren arloen balantzea egiteko ere balio izan zien topaketak, hala nola kultura- eta sormen-industriak, bioteknologia, adimen artifiziala, klima-aldaketa edo turismoa. Lan-eremu berriak aztertu zituzten, digitalizazioa eta zibersegurtasuna, besteak beste. Gainera, pandemiaren ondoriozko egoerari eta etorkizuneko aurreikuspeni buruzko ikuspegia partekatu zuten bi presidentek.

“Flandes eta Euskadi integrazio europarrarekin konpremitutako bi errealitate nazional gara”, adierazi du lehendakariak. Flandriak Quebec eta Eskoziaren lekukoa hartuko du.

Kultur topaketa profesionalak

Astlehenean hasi eta asteazkenara arte, eragileek aukera izango dute ezagutzeko euskal hiriburuko Santa Maria katedrala, Donostiako Tabakalera, Chillida Leku, Artium, Guggenheim eta Arte Ederren museoak, Albaola Itsas Faktoria edota Azkuna Zentroa, besteak beste.

Elkar ezagutzea areagotzeko, bi herrialdeen arteko kultur trukaketak sustatzeko, bi aldeetako sorkuntza eta hedapena bultzatzeko, esperientzia eta ezagutza trukatzeko, eta kultur erakuslehoak eratzeko helburuarekin antolatu ditu Flandria eta Euskadiko kultur eragileen arteko topaketa hauek Etxepare Euskal Institutuak.

Guztira, arte eszenikoen, zinema eta ikus-entzunezkoen, literaturaren, musikaren, artearen eta hizkuntzaren alorreko hamabost flandiar eragile, publiko zein pribatu, eta hogeita hamar bat euskal eragile bilduko dira Gasteiz, Donostia eta Bilbon antolaturiko jardueretan.

Flandriako eragileen artean daude: Cirklabo, COMAV / FeBeME-BeFEM, Constant: Association for Art and Media, Cultural Department of the City of Leuven, Curating the Young, Flanders Arts Institute, Flanders Literature, Hiros, LLS Paleis, Mama’s Open Mic, Nadine & BYSTE, Out of Sight, SoundImageCulture – SIC, eta Z V E Z D O L I K I ensemble.

Haiekin elkartuko diren euskal kultur eragileen zerrenda osatzen dute, bestalde, Artekale, ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte, Albaola Itsas Kultur Faktoria, Artium Museoa, Asociación de Escritores de Euskadi - Euskadiko Idazleen Elkarte, Azkuna Zentroa, Bilbao Fine Arts Museum, Bitamine Faktoria, Dantzaz, Danzalava, Deabru Beltzak, Duo Olaia & Gilles, Eremuak, Eskena, Etxepare Euskal Institutua, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Irudigileak, Eusko Jaurlaritza Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Fundación Catedral Santa María, Gremio de Editores de Euskadi / Euskadiko Editoreen Elkarte, Mari Zaunka 46, MIE Musika Industriaren Elkarte, Musika Bulegoa, Musikari, Okela, Tabakalera eta Zirkozaurrek.

Flandria-Euskadi hitzarmena

Astelehenean sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandumaren (MoU) arabera, Euskadik eta Flandesek identitate kolektiboaren eta beren historia, kultura eta hizkuntza propioaren zentzu sakona partekatzen dute. Hori dela eta, bien arteko harremanak sakontzeko asmoa adierazi dute, interes komunekin hainbat eremutan lankidetzan aritzeko.

Horrela, dokumentuan, hasiera batean, bi gobernuen arteko lankidetzaren oinarri izango diren 15 arloak jasotzen dira. Besteak beste: digitalizazioa; ingurumena (bereziki ekonomia zirkularrari, klima-aldaketari eta itsas ikerketari dagokienez); garraioak (batez ere portuei, logistikaren garapenari, mugikortasunari eta obra publikoei dagokienez); gizarte-politikak; genero-berdintasuna; turismoa; kultura- eta sormen-industriak; osasuna; eta enplegua eta enplegurako zerbitzu publikoak.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus